

MINBIZIAREN AURKAKO ESPAINIAKO ELKARTEA: SORBURU IDEIAK DEIALDIA, 2017

Xedea:

Deialdiaren xedea da arrakasta lortuz gero ikerketa-proiektu sendoak bilaka litezkeen minbizia ikertzeko aukera berritzaile berrien sorkuntza finantzatzea.

Lehentasuneko proiektuak:

- Oinarrizko zientzia
- Epidemiologia
- Psikoonkologia
- Onkologia ikerketa klinikoa

Proiektuen ezaugarriak:

- Proiektuek 2 urteko iraupena izango dute, gehienez.
- Gehienezko finantzazioa 20.000 eurokoa izango da. Halere, aurrekontu handiagoak finantzatzeko aukera aztertuko da kasu berezitan.

Ikertzaile Nagusiaren (IN) ezaugarriak:

- Doktore titulua izatea.
- UPV/EHUari lotua egotea, eskaera aurkezten den unetik eta proiektuak irauten duen epe osoan zehar.
- Aldez aurretiko eskarmentua izatea, IN gisa, lehiaketa izaerako deialdi publikoetan lorturiko proiektuetan.

Eskaerak aurkezteko epea:

2016ko azaroaren 29a, arratsaldeko 15:00etan

2016ko azaroaren 21a (egun hori barne)	I. eranskina bidali behar da, proposatutako langileen zerrenda jasotzen duena, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak gainbegiratu dezan. Eranskina convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidali behar da, gaiari "Sorburu Ideiak AECC" jarrita.
2016ko azaroaren 25a (egun hori barne)	Proiektuaren memoria beteta Ikerketaren arloko Errektoreordetzak c) atala "Emaitzen hedakuntza eta komunikazio plana" bete dezan. Memoria convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidali beharko da, gaiari "Sorburu Ideiak AECC" jarrita.
2016ko azaroaren 29a	ESKAERAK AURKEZTEKO AZKEN EGUNA.

Eskaerak aurkeztea:

Eskaerak AECC Zientzia Fundazioaren web plataformaren bidez aurkeztuko dira: <https://fundacioncientifica.aecc.es/login>

Eskaerak aurkezteko prozesuak bi fase izango ditu:

I. FASEA: AURREPROPOSAMENA	II. FASEA: PROPOSAMEN OSOA
Aurkeztu beharreko dokumentuak: <ul style="list-style-type: none"> ✓ INaren CVa ✓ NAN edo indarreko bizileku-baimena eta pasaporte ✓ Aurreproposamena 	Aurkeztu beharreko dokumentuak: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Txosten zientifiko osoa ✓ Txosten ekonomikoa ✓ UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordearen adostasun idatzia ✓ Dagozkion etika batzordeen idatzia

OHAR GARRANTZITSUA: INak eskaera epe barruan eta zehaztutako eran aurkeztu beharko du. Ondoren, aurreproposamenari dagozkion dokumentuak convocatorias.dgi@ehu.es helbidera bidali beharko ditu. Aurreko izapidea ezinbestekoa da UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordearen adostasun idatzia lortu ahal izateko eskaerak lehen ebaluazio bahea gainditzen badu.

AECC Zientzia Fundazioaren harremanetarako informazioa:

Tel.: 91 310 82 54

Posta-e: fundacion.cientifica@aecc.es

UPV/EHUren harremanetarako informazioa:

Tel.: 94 601 80 08

Posta-e: convocatorias.dgi@ehu.es

Informazio gehiagorako:

<https://fundacioncientifica.aecc.es/tramites/TR0000000843>